



GARRALDAko Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2024ko otsailaren hogeita batean, arratsaldeko zazpitan, Udal Korporazioak bilkura arrunta egin du, lehenengo deialdian, legalki deituta, Alkate anderearen zuzendaritzapean eta jarraian adierazten diren zinegotzi jaun-andereak bertan zirela. Honako hauek izan dira aztertutako EGUNEKO GAIAK:

Bertaratutakoak:

Alkate anderea: Begoña Munárriz Guezala

Zinegotzi jaunak: M. Andueza, M.J. Barberena, I. Iriarte. A.L Mandacen.

LEHENA.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONESTEA

Honako akta hauek irakurri dira: Udalbatza eratzeko 2023ko abenduaren 16an egindako bilkurarena eta 2023ko abenduaren 20ko bilkura bereziarena; ez da eragozpenik agertu, eta aho batez onartu dira.

BIGARRENA.- ALKATEAREN EBAZPENAK.

Osoko Bilkurari jakinarazi zaio Alkateak honako Ebazpen hauek eman dituela:

- 1/24 Ebazpena, urtarrilaren 11koa, Arantza Irigoyen Pedroarenari Soroaldea auzoko 143. zenbakian dagoen etxebizitza lehen aldiz erabiltzeko lizentzia ematen diona.
- 2/24 Ebazpena, urtarrilaren 11koa, Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzuko Joko eta Ikuskizun Publikoen Atalari jakinarazten diona udal honek ez duela eragozpenik Korrikaren jarduera baimentzeko.
- 3/24 Ebazpena, urtarrilaren 15koa, Garralda-Ariako Udalen Elkarteko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua aldi baterako eta administrazio-erregimenean betetzeko plazarako deia egin eta baldintzak onartzen dituen; Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Agoizko bulegora baldintza horiek bidaltzea eta Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesio Departamentuko Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari laguntza eskatzea, epaimahai kalifikatzaileko kide izateko eta alegatutako probak eta merezimenduak egiten eta baloratzen laguntzeko.
- 4/24 Ebazpena, otsailaren 6koa, Idazkaritza-Kontu-hartzaitza lanposturako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onesten duena.

- 5/24 Ebazpena, otsailaren 12koa, Idazkaritza-Kontu-hartzailatza lanposturako deialdian onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onesten duena.
- 6/24 Ebazpena, otsailaren 13koa, Saioa Erdozain Urtasuni Aitor Ropero Lasari Espilapeta auzoan (2. Poligonoa, 34 lur zatia) etxebizitza familia bakarra egiteko obra baimena ematen diona.
- 7/24 Ebazpena, otsailaren 14koa, Miguel José Barberena del Riori eroritako bi zuhaitz adar egurra egiteko baimena ematen diona.
- 8/24 Ebazpena, otsailaren 20koa, Alejandro Belzunceri eta Aitziber Villalbari Garraaldako Espilapeta auzoko Juangartziarenaren bordako (Ekiargi) fatxada egokitzeko obra baimena ematen diona.
- 9/24 Ebazpena, urtarrilaren 21koa, Acciona Generación Renovables S.A.-ri Olaldea-1 Zentral Hidroelektrikoaren urteko mantentze jardueretarako obra baimena ematen diona.

Udalbatza Ebazpenen edukiaren jakinaren gainean geratu da, eta guztiekin adostasuna agertu du.

HIRUGARRENA.- SARA SARERA ATXIKITZEA

Ikusirik Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak erakunde honi bidalitako informazioa, eta kontuan hartuta ez dagoela jasota hura Sara sarera (Aplikazioen Sistemak eta Administrazioentzako Sareak) atxiki denik, hau da, Espainiako Administrazio Publikoen eta Europako Erakundeen sareak lotzen dituen oinarritzko komunikazio eta zerbitzu azpiegituren multzo batera, eta informazio-trukea eta zerbitzuetarako sarbidea errazten duenez, Osoko Bilkurak bertaratutakoen aho batez erabaki du:

1.- Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak administrazio elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko 2015eko uztailaren 17an sinatutako lankidetzak hitzarmenari atxikitzea, haren bigarren klausulan aurreikusitakoaren arabera, eta hitzarmen horretan zerrendatutako zerbitzu bakoitzean erabiltzailearentzat ezarritako betebeharrak betetzea bere gain hartzea, dagokion eranskinean ezarritako baldintzetan.

2.- Atxikitzeko erabaki hau Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioari eta Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuari helaraztea, Nafarroako Gobernuaren izenean eta ordezkaritzan, aipatutako hitzarmenaren bigarren klausulan ezarritakoa betez.

3.- Erakundea sisteman alta emanda dagoenean, eskatuko da: batetik, VPN atarian alta emateko, horretarako erabiltzaileen zerrenda (erakundeko idazkaritza) eta sarbide motak adierazita; eta, bestetik, Datuen Bitartekotzarako Plataforman (PID) alta emateko.

LAUGARRENA.- IKASTETXEETAKO OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA.

Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 29ko 21 zenbakian, argitaratu da 197E/2023 Ebazpena, abenduaren 28koa, Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiarena, Haur Hezkuntzako 2. zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe mistoetan hobekuntza- eta birmoldaketa-obren proiektuak gauzatzeko Nafarroako toki entitateei (udalerriak eta kontzejuak) dirulaguntzak emateko deialdia onartzen duena. Eskaerak aurkezteko epea martxoaren 11n amaituko da. Ikastetxean egin beharreko obren hainbat espediente ikusi dira (arrapala, hodiak eta zorrotanak konpontzea, haur-hezkuntzako komunak, suteak detektatzeko sistema), eta ERABAKI DA argitaratutako deialdira honako obra-espediente hauek aurkeztea:

1- Eraikinerako sartzeko kanpoaldean dagoen arrapala estaltzea

Gauzatze materiala, guztira	11.850,35 €
% 7,50 Gastu Orokorrak	888,78€
% 7,50 Industria Etekina	888,78 €
G.O. eta I.E., guztira	1.777,55 €
Kontrataren aurrekontua, guztira	13.627,90 €
% 21 BEZ	2.861,86 €
AURREKONTU OROKORRA	16.489,76 €

Ordainsari teknikoak, memoria baloratua idaztea, proiektua idaztea eta obrak zuzentzea, BEZa barne: 1.347,67 €

Obra eta ordainsari teknikoen aurrekontua, guztira, hamazazpi mila zortziehun eta hogeita hamazazpi euro eta berrogeita hiru zentimokoa da (17.837,43 €).

2- Ikastetxeko teilatuko hegalek konpontzea.

Gauzatze materiala, guztira	17.356,03 €
% 7,50 Gastu Orokorrak	1.301,70 €
% 7,50 Industria Etekina	1.301,70 €
G.O. eta I.E., guztira	2.603,40 €
Kontrataren aurrekontua, guztira	19.959,43 €
% 21 BEZ	4.191,48 €
AURREKONTU OROKORRA	24.150,92 €

Ordainsari teknikoak, memoria baloratua idaztea, proiektua idaztea eta obrak zuzentzea, BEZa barne: 2.208,57 €

Obren eta ordainsari teknikoan aurrekontua, guztira, hogeita sei mila hirurehun eta berrogeita hemeretzi euro eta berrogeita zortzi zentimokoa da (26.359,48 €).

BOSGARRENA.- 2023. URTEKO KONTABILITATEAREN EGOERA BERRIKUSTEA ETA 2024. URTEKO AURREKONTUA PRESTATZEA.

2023ko ekitaldiko behin-behineko likidazioa aurkeztu da, kontabilitatearen egiaztapen orokorra eta kontuen itxiera egin gabe. Banku-saldoak koadratuta daude, eta 2023ko abenduaren 31n honako kopuru hauek eman ditu:

- Hasierako izakinak (2022/12/31):	135.556,58 €
- Bukaerako izakinak (2023/12/31):	221.357,77 €

Ordinalen araberako banakapena:

Banco Santander:	101.080,71 €
La Caixa:	114.912,67 €
Rural Kutxa:	5.102,43 €
Banaketa kontua:	-4,69 €
Kutxa:	266,65 €

Honako hau da kobratutako eta ordaindutako kopuruaren banakapena:

	KOBRATUTAKOAK	ORDAINDUTAKOAK
Aurrekontu arruntak	727.351,80	586.982,78
Itxitako aurrekontuak	35.212,80	6.664,88
Aurrekontuen kanpokoak	222.589,17	305.709,61
GUZTIZKOAK	985.153,77	899.357,27

Aurrekontuaren betearazpena berrikusi da partidaz partida eta lotura-poltsaz poltsa. Urte honetan zaila izan da gauzatze-egoeraren beharrezko kontrola egitea, erakundearen funtzionamenduaren eta kontabilitate-programaren funtzionamenduaren berri ez zuten langileak aritu direlako. Hori dela eta, fakturen kontabilitatea atzeratu da eta ezin izan da aurrekontuaren jarraipena egin. Etorkizunean, erakundearen funtzionamenduari hobeto egokitutako estimazioa egitea gomendatzen da, aldaketarik egin ez dadin, kasu jakin batzuetarako izan ezik. Era berean, 2023ko berrikuspenari dagokionez, 2024ko aurrekonturako aurreikuspenak egiten ari dira, eta zirriborro bat egingen da hurrengo bilkuran aurkezteko.

Bestalde, 2023ko ekitaldiari dagozkion ordaindu eta kobratu gabeko kopuru nagusien berri ematen da, bai eta produktu naturalak biltzeko txartelen

salmentatik ateratako datuena ere. Datu horiek Landa Garapen eta Ingurumen departamentuan aurkeztu dira.

SEIGARRENA.- ZENBAIT

1-Etxerako egur loteak

ERABAKI DA bando bat bidaltzea auzotarrei, 2024. urtean etxerako egur lotea aprobetxatzeko eskaerak aurkez ditzaten, martxoaren 15rako. Bando berean, Margolatean eta Bioxilon ateratako aprobetxamentuko adar hondarrak nahi dituenak aprobetxamendu hori arazorik gabe egin dezakeela jakinaraziko da.

2- Kabalen zerrenda eta NPB-rako (PAC) hektareen eskatzea

ERABAKI DA, era berean, abisu bat igortzea, eskaerak aurkezteko martxoaren 25ean amaitzen dela adierazteko. Abeltzaintzako ustategietako titularrek 2024rako larreetara sartzeko eskaera (aurreikusitako abere kopurua adierazita) aurkeztu ahal izanen dute, eta baita NPB deklaraziorako hektareen eskaera ere.

3- Kultur Programa

2024rako Kultur edizio berri bat irekiko dela jakinarazi da. Edizio honetan Nafarroako 40 udalerri baino gehiagok hartuko dute parte, Nafarroako Gobernuak bere Kultur Ekintza Zerbitzuaren bidez hautatuak. Udalerrian jarduera bat antolatzeke interesa duten toki-erakunde guztiei eskatu zaie horren berri emateko, lehentasunezko datak eta antolakuntzarako eskuragarri ez dauden datak adierazita; berariaz adierazi da toki-erakundeek lehentasunak betetzen saiatuko direla, ikuskizun data eta motari dagokienez, baina, programaren antolaketa konplexua denez, ez da hautaketa hori bermatzen.

Osoko Bilkurak erabaki du Nafarroako Gobernuak Kultur Ekintzako Zerbitzuari eskatzea jarduera bat antola dezala, ahal dela musikala edo arte eszenikoetakoa, abuztuan lehentasunez.

4- Kudeaketa gomendioaren hitzarmenaren amaiera

Idazkaritza-Kontuhartzailletza plazaren deialdia dela eta, idazkariak kargu uzteari buruz aurkeztutako jakinarazpenaren ondoren, lanpostura itzultzen den pertsonak entitatearen funtzionamenduaren berri izan arte, administrari laguntzailearen kontratazioari dagokionez gomendio hitzarmena luzatzeko eskatu da. Luzapen horren iraupena, hasiera batean hilabeterako aurreikusitakoa, idazkari berriaren profil pertsonalaren arabera erabakiko da.

ZAPIGARRENA.- GALDERAK ETA ESKEAK

Ez dira egin

Eta aztertzeke gai gehiagorik agertu ez baita, bilkura bukatutzat eman da goian adierazitako eguneko gaueko hamarrak zirela. Akta hau luzatu da, eta, nik, idazkariak, egiaztatzen dut.